



Oriako Txirrindulari Eskola txapeldun izan da Gipuzkoako Txapelketan

TALDEKA ▶ Junior mailakoek: Gurrutxagak, Ugartek, Iriartek, Olanok eta Mendikutek lortu dute Ordizian ▶ 3



Oriako Txirrindulari Eskolako ziklistak, taldeka Gipuzkoako Txapelketa irabazi ostean, podiumean. HITZA



DANI GIBELALDE

«Maila onarekin nator eta hamaikakoan postu bat lortzeko borrokatuko dut»

Gari Urangak bi urterako sinatu du Realarekin; gogotsu da ibartarra ▶ 6

LEITZALDEA ▶

57 eragileri, Bai Euskarari Ziurtagiria

Ostiralean egin zuten banaketa ekitaldia ▶ 7

TOLOSA ▶

Emaitza onak eman ditu aurten Aitzol udal euskaltegiak

Berrikuntza izan dira autoikaskuntza gela eta azterketa ofizialak egitea ▶ 2

ZETA NATURALAREKIN AZALIK LEUNENA *Kanebo*
INTERNATIONAL

KANEBO kosmetika etxeak, zetazko fibroinaren oinarritutako tratamendu orokorra eta pertsonalizatua eskaintzen dizu

Etorri uztaillaren 5etik 9a bitarte tratamendu eraginkorrena **DOHAINIK** probatzera

Estetikako Zentru Integrala

Maite

tratamendu eraginkorra emaitzak nabari dira

Calle Herreros - TOLOSA - 943 67 03 38

TOLOSA ▶

Zerkausiaren inguruko bilera udaletxean

Gaur izango da Zerkausiaren inguruko bilera udaletxean. Bertan, eraikineko estalkiaren erabilera zehaztu nahi dute. Bilera irekia izango da, beraz, aurrez egindako inkesta burutu dutenek, zein burutu ez dutenek izango dute bertara joateko aukera. Gai honen inguruan hitz egiteko, 20:00etan elkartuko dira Tolosako udaletxeko areto nagusian.

ANOETA ▶

Kimetz-eko eta HITZAKo saria Anoetara

Egoitz Iñurritta anoetarrak lortu du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Tolosako Kimetz gazte arropa dendarekin elkarlanean emandako saria. Arropa eta materiala jaso du Iñurritak dendako arduradunaren eskutik —argazkian—. Urtean zehar, HITZAKo harpidedunen artean sariak banatzen dira, Tolosaldeko denda eta komertzioekin elkarlanean.



Egoitz Iñurritta Kimetz dendako arduradunarekin. HITZA

TOLOSA ▶

Pasabanek ez du K2a menperatzea lortu oraindik

Edurne Pasaban, K2 mendia-
ren magalean dago *Al filo de lo imposible* kideekin batera. II. kanpamentuan zirela, III. kanpamentura egiteko lanean atzera egin behar izan dute. Eguraldi txarrak, haizeak eta elurrak ez die aurrera egiten utzi. Taldekideek, aste honen erdialdean eguraldi hobea etorriko dela uste dute, eta orduan saiatuko dira berriz ere.

EUSKARA ▶

Aitzol udal euskaltegikoak «pozik» ikasturte honetako matrikula eta emaitzekin

Guztira 26 talde eta 253 ikasle izan dituzte amaitu berri den ikastaroan; autoikaskuntza gela eta azterketa ofizialak izan dira aurtengo berrikuntzak

JOXEMI SAIZAR

Aitzol udal euskaltegiko arduradunak «pozik» agertu dira 2003-04 ikasturte «gogorren» balorazioa egiterakoan, matrikulazioa «mantendu eta piska bat gora egin» duelako —hainbat komunikabidetan euskaltegiaren jaisiera dagoela esaten dute— eta emaitza onak lortu dituztelako.

Guztira 26 talde izan dituzte ikastaro honetan, ohiko talde, guraso talde, enpresetako talde, EGAKo talde berezi —aste-an bitan— eta iraileko EGAKo taldeen artean. Horiei aurren berrikuntza izan den Autoikaskuntza gelan aritu diren beste 40 ikasle erantsi behar zaizkie. Guztira 253 ikasle izan dituzte Aitzolen. «Aurten gainera inoiz baino ikasle gutxiagok utzi



Aitzol udal euskaltegiko ikasle batzuk. MARTA SAIN SEBASTIAN

dute euskaltegia urtean zehar, bederatzik besterik ez», dio Miren Atxaga zuzendariak.

Ikastaroa amaitu da eta egun hauetan iraileko EGA ikastarorako eta 2. azterketarako matrikula egin daiteke: hilaren 15a bitarte iraileko klaseetarako

eta 16a bitarte irailean azterketa egin ahal izateko.

Azterketa ofizialak

Autoikaskuntzarekin batera, aurtengo beste berrikuntza azterketa ofizialak euskaltegian

egitearena izan da. Euskalduntzen I. eta II. mailak —EGA baino bajuagoak— egin dituzte. «Ikasle gutxi egin dituzte, baldintza oso estuak zirelako eta lehen aldia zelako», dio Atxagak. Azterketa hauek ekainean izan dira Aitzol euskaltegian bertan eta aztertzaileak ere bertako irakasleak izan dira.

Azkenik, urtean zehar egindako kanpo ekintzak ere alpatu nahi izan dituzte euskaltegiko arduradunek. Ohiko bi afariez gain —sagardotegikoa eta kurtsu amaierakoa—, bi antzerki saio —euskaldun berriei buruzkoak arrakasta handia izan zuen—, hiru hitzaldi —bizitzeko arteaz, Nairobitarrak Josu Iztuetak eta 1936ko fusilatuak Juantxo Agirrek— eta aromaterapia ikastaroa izan dituzte Aitzoleko ikasleek.

Bakarka ikastea

Urtarrilean jarri zuten martxan Autoikaskuntza gela Aitzol udal euskaltegian, esperientzia aitzindaria izan da hemen inguruan eta «gustura» agertu dira ekimen honen arduradunak eta ikasleak. Erreterian ere izan da horrelako bat, baina datorren urtean ez da izango, eta, agian, Zarautzen jarriko dute martxan. Lan «izugarria» eman omen die prestatzeak, «da material guztia» sortu behar izan dutelako.

Euskara ikasteko ordenagailua bakarrik ez dela nahikoa diote irakasleek. Bakarka ikasteko Aurten bai fundazioak Hezinet programa —Boga izena hartu du programa berrituak— atera du, baina tutoritza, mintza saioak eta beste materiala ere «oso beharrezkotzat» jotzen dituzte. Lau atal horiek batera eskaintzen dituzte Tolosako udal euskaltegian. Internez kontsulta ugari jasotzen dituzte informazio eske, HABEren webgunean lotura baitu euskaltegiak. Hiru hila-bete, sei hilabete eta urte osoko matrikula egin daiteke Autoikaskuntza gelan.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Aia. Berrikuntza behar duen baserria, lursailarekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 50m2-ko etxebizitza, 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatzeko. 25.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

Alegia. Eraikuntza berria, duplexak eta etxebizitza 34.500.000 pezetatik aurrera. Informazioa: Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Kale Nagusian 75 m2-ko etxebizitza, 3 logela, aparteko egongela-sukalde «amerikarra», bizitzera sartzeko moduan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Kale Nagusian berrituzko dagoen, 80 m2-ko atikoa, 4. pisua, igogailurik gabe. 25.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Plaza Berrian 100 m2-ko etxebizitza, bizitzera sartzeko prest. 3

logela, 2 bainugela, egongela-sukalde «amerikarra». 4. pisua igogailurik gabe, fatxada eta teilatu berriak. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Sam-en 150m2-ko etxe abikia. Lorategiarekin. 76.000.000 pta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Urkizu auzoan berrikuntza behar duen 170 m2-ko 2 solairu dituen baserria salgai. 125.000 m2-ko fruitu arbolak, bista zoragarriak. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

69 68 56.

Villabona. Lokal komertzialak, taberna, alokairuan edo salgai. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona, Zizurkil eta Andoain. Taberna salgai edo alokairuan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskari handiagatik. Nekazal lursailak urbanistikokoak. Saltzeko eta alokatzeko. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

KAZETARITZA ▶

Rikardo Arregi sarien Ohorezko aipamena jaso du Labaienek

ETB1 sortu zuen talde osoak jaso du Ohorezko saria; Ramon Labaien tolosarra izan zen aurreneko zuzendaria



Ramon Labaien, Tolosako Kultur Etxean, artxiboko irudian. LEIRE MONTES

ERREDAKZIOA

Larunbat eguerdian banatu ziren Andoainen XVI. Rikardo Arregi kazetaritza sariak. Eta Tolosak izan zuen ordezkariarik haietan: Ramon Labaien tolosarrak jaso zuen Ohorezko Saria.

ETB1 sortu zuen talde osoak jaso du aurtengo Ohorezko aipamena. Euskarazko telebista sortzen egindako lanarengatik saritu dituzte. Labaien Donostiako alkate izan zen, hain zuzen ere, Kultura sailburua telebistaren sorrera garaian; berak jaso zuen saria Andoainen, lan taldearen ordezkari gisa.

«Pozik» agertu zen Labaien saria jasotzean, eta irribarretsu mintzatu zen jendaurrean. «Sortzaile guztien» lana gorai-patu zuen tolosarrak, eta Ohorezko saria jasotzea «harena soilik ez, denon meritua» dela

gaineratu zuen. Bestalde, ETB1 sortu zeneko garaia gogora ekarri zituen Labaienek, malenkonia. Eta, ildo beretik, kritika egin zion gaur egungo gizaritari: «Egungo gizaritea beharri-motza da», adierazi zuen, tinko.

Labaiene buruz, liburua

Larunbateko sari banaketa ekitaldian, gainera, Ramon Labaien eta tolosarrak ETBn egindako lanari buruzko liburua banatu zuten: *Ramon Labaien. Euskal telebista, hutsean sortua*.

Nerea Azurmendik idatzi du, eta Andoaingo Udalak argitaratu. Martin Ibarbiak, Jose Mari Oterminek, Xabier Mendiguren Bereziartuk eta Arantxa Urretabizkaiek, besteak beste, kolaboratu dute tolosarraren gaineko liburuan.

IRABAZLEAK ▶

XVI. Rikardo Arregi kazetaritza sarien irabazleak dira ondorengoak:

SARI NAGUSIA

Jose Mari Pastor. Berria egunkariko *Mundua* saileko erredaktoreburu Jose Mari Pastorrek jaso du aurtengo Sari Nagusia, 2003ko maiatzetik 2004ko maiatzera argitaratutako *Leku-Jekutan* lanengatik.

KAZETARRI BERRIA SARIA

Aritz Agirre. Euskadi Irratiko Madrilgo berriemaile Aritz Agirrek jaso du, 2003ko ekainetik 2004ko maiatzera egindako lanengatik.

AIPAMEN BEREZIA

'Postdata' saioa. ETBko *Postdata* saioak, 36ko gerrako Andoaingo fusilatuen senideen testigantzak biltzen zituen *Isiltasunaren zama* izeneko lanarengatik. 2004ko apirilaren 29an emititu zen. Lanaren egileak, Nerea Iriarte kazetariak, jaso zuen saria.

OHOREZKO SARIA

ETB1eko sortzaileak. ETB1 sortu zuen talde osoarentzat, euskarazko telebista sortzen egindako lanarengatik. Garai hartan Kultura sailburu zen Ramon Labaien tolosarrak jaso zuen saria.

TXIRRINDULARITZA ▶

Oriako TE-ko juniorrak Gipuzkoako txapelkun

Ordizian ospatutako erlojupeko Gipuzkoako txapelketako garaile suertatu dira



Hiru taldetako txirrindulariak eta ordezkariak, podium-ean. HITZA

IÑIGO ASENSIO

Oriako Txirrindulari Eskolako junior taldea izan zen azkarrena, igande arratsaldean, Ordizian jokatu zen Gipuzkoako erlojuaren aurkako taldekako Txapelketan, Bruesa eta Caja Rural taldeen aurretik. Eneko Gurrutxaga, Aitor Olano, Aritz Ugarte, Xabier Iriarte eta Imanol Mendikutek osaturiko taldeak 42 minutu eta 2 segundo behar izan zituen 32 kilometroko ibilbidea burutzeko.

Jesus Manso, taldeko zuzendariaren hitzetan, «txirrindularien lana, teknikoki ezin hobea izan zen ibilbidearen traza-keta, gurpil hartze eta erreleboei dagokienez». Ordizia, Zaldibia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta eta Alegian barrenako ibilbidean jokatu zen txapelketa eta taldeko zuzendariak, Orkatz Goenaga eta Jesus Manso berak, 4 erreferentzia puntu zituzten ibilbidean zehar, Ordizian bertan, Legorretan, Alegiako errotan eta berriz ere Legorretan Ordiziara itzultzerako. Oriako txirrindulariek denbora honek markatu zituzten ibilbide osoan eta nahiz eta Alegian, lehen urteko Aritz Ugarte gaztea erritmoari ezin eutsirik geratu, bere taldekideek ara-

zori gabe mantendu zuten ordurarte abantaila.

Handik gutxira, AEG talde donostiarrak pasatzera zihoaztenean, hauek gainditzeko arazoak izan zituzten, epaile bati deitzea beharrezkoa izan zelarik. Honen ondorioz, ordurarte lortua zuten abantaila 32 segundotik 17 segundora jaitsi zen. Hala eta guztiz ere azken kilometroetan erritmoa berreskuratu eta garaipena Tolosaldera ekarri zuten.

Agirrezabala, Euskaltelera?

Joseba Agirrezabala txirrindulari anoetarrek, bostgarren postua erdietsi du atzo amaitu zen Bizkaiko Birako sailkapen orokorrean. Zurrumurruek diotenez, Agirrezabala Euskaltelen hurrengo urterako planetan legoke. Euskal taldea UCI por Tour-ean egotea izan daiteke erabakia hartzeko baldintza. Anoetarra urte bikaina burutzen ari da aurtengo denboraldian.

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

TOLOSAKO UDALA IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak, 2004.eko ekainaren 7an egindako bilera, Gorosabel kalea urbanizatze proiektua proiektua egiteko lanak, lehiaketa bidez, emateko baldintza plegua onartu zuen.

1.- Helburua: Gorosabel kalea urbanizatze proiektua idaztea (Aurreproiektua, Exekuzio Proiektua, Segurtasun eta Osasun Estudioa, Kalitate-kontrol Programa, Obra Zuzendaritza, eta obra bukaerako planoak).

2.- Licitazioaren zenbatekoa: 107.000,00 euro (BEZ barne).

3.- Lanak egiteko epea: Aurreproiektua idazteko bi hilabete, Exekuzio Proiektua, Segurtasun eta Osasun Proiektua eta Kalitate-kontrol Programa, aurreproiektua onartzen dela jakinarazten denetik lau hilabete.

4.- Espedientea ikusteko: Tolosako Udalteixean, Erregistro Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B. Tel.: 943-65-44-66.

5.- Behin behineko fidantza: Ez da jarri behar.

6.- Behin betiko fidantza: Licitazioaren %4a.

7.- Eskaintza egiteko epea eta tokia: Tolosako Udalteixeko Sarrera Erregistroan, Plaza Zaharra, 6-B, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datoren biharamunetik zenbatuta 20 eguneko epean, eguerdiko ordu bata (13:00) arte.

Tolosan, 2004.eko ekainaren 23an • ALKATEA

UDALEKU IREKIAK ▶

Villabonan, Zizurkilen eta Aiztondon martxan dira udaleku irekiak haurrentzat

Aiztondo zerbitzuen mankomunitateak eta Villabonako eta Zizurkilgo udalek antolatu dituzte udaleku irekiak; Villabonan atzo hasi ziren haurrak lanean



Zizurkilgo adin ertainekoek, eskulanak egin zituzten atzo; Jesusen Bihotza ikastolan elkartzen dira. G. AZKUE



Jolasak, irteerak eta beste hamaika ekintza izango dituzte haurrek; argazkian, Villabonako haurrak lehen egunean. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Dagoeneko hartu dituzte haurrek udako oporraldiak. Hiru hilabete luze dituzte orain lasai egoteko. Oporraldi horietan ez aspertzeko, ordea, inguruko udal askok, udaleku irekiak antolatzen dituzte haurrek jolasteko aukera izan dezaten. Zizurkil eta Villabonaren kasua da hori.

Zizurkilen, 85 ume inguru ari dira orain aste batetik hona jolasean, izan ere, oporretan euskaraz martxan da beste behin ere. Haurrek elkar ezagutzeko aukera dute, lagunekin jolastu, irteerak egin, eskulanak burutu... Aurreko urteetan Pedro Maria Otaño ikastetxean elkartzen baziren ere, berritze lanak direla-eta, aurtun. Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolan egongo dira hilaren amaiera bitarte. Aurtun bildu diren 85 haurrak, hiru taldetan banatu dituzte: txikiak, ertainak eta handiak. Atzo, adin ertainekoak gelditu ziren eskulanak egiten ikastolan, gainerakoak igerilekuan zeuden bitartean.

185 haur Villabonan

Villabonako Udalak, aurtun ere, udaleku irekiak antolatu ditu herriko haurrentzat. Atzo izan zuten lehen jolas eguna. Villabonan 185 haur elkartu dira, hiru talde nagusitan eta bederatzita talde txikitik, iaz baino gehiago; eta haur horiek guztiak zaintzeko, 20 begirale ari dira lanean. Hauek ere egunero izango dute ekintza berri bat egiteko, baina billabonarentzat ostiralak izango dira egun bereziak. San Ferminak ospatuko dituzte ostiral honetan, eta Villabonako kaleetan zehar ur festa egingo dute. Hurrengoan, Olaederran *showa* ere eskainiko dute; eta azken ostiralean, egun guztirako irteera izango dute. Irteerak ez dituztenean, Flemingo Arroako eraikinean bilduko dira.

Baina udalez gain, beste eraikundeek ere antolatzen dituzte halako udaleku irekiak. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateak, esaterako, Aiztondoko haurrentzat antolatu ditu hainbat ekintza. Orain bi aste hasi ziren elkartzen Alkizako, Larrulgo eta Adunako haurrak: atzo, Usurbilgo igerilekura joan ziren bertan dauden 37 haurrak; eta ostegunean Tolosan izango dira bi egun pasatzen.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



GUTUN@K 

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Oztopo guztien gaitetik, festa alternatiboak aurrera

Kaixo, anoetar guztioi, eta mila esker festa alternatiboen gunera inguratu eta bertan parte hartu duzen guztioi; zuen presentziarik gabe ezinezkoa izango baitzen festa hauek horrelako giro alai, goxo eta herrikoian igarotzea. Eskerrak eman nahi dizkiegu laguntza eta babesa eman diguten enpresa, komertzio eta dendei ere; eta, bereziki, Irurako Udalarri eta Maite janaridendari —ez baikenituen beraien ize-nak laguntzaileen artean ipini—. Barkamenak, bestetik, gauza bategatik edo besteagatik eragozpenak eta oztopoak izan dituzten herritar guztiei.

Festa Alternatiboan Batzor-

deko kideok oso balorazio ona egiten dugu, eta arrakastatsutzat jotzen ditugu anoetarron eskubideen defentsan egin ditugun festa hauek. Alde bategatik, haur, gazte eta heldu askok parte hartu dutelako antolatuturiko ekintzetan, eta, gure ustez, herritarren parte-hartze aktibo handia izan dugulako. Eta bestetik, Udalak eta eguraldiak ipinitako oztopo guztien gaitetik, aurreikusita genituen ekintza guztiak, baliabide gutxirekin baina umore onean, aurrera eramateko indarra erakutsi dugulako.

Gure aldetik, hurrengo urtean Festa Alternatiborik antolatu beharrik ez izatea espero dugu, horrek anoetarron eskubideak errespetatzen direla eta Anoetako Udalak herritarrek baztertzeari utzi diola esan nahiko baitu. Baina, era berean, argi utzi nahi dugu, Fidedel Azpiroz buru duen udal tal-

deak bere jarrera itxi eta baztertzalea alde batera uzten ez badu datorren urtean berriro festa alternatiboak antolatzeak aukerari ez diogula uko egingo.

Bukatzeok, azalpen bat eman nahi genuke San Joan bezperan Anoetako udal korporazioak argitaratutako idatzi lotsagarri horren aurrean. Izan ere, bertan egiten zaizkigun akusazioak oso gogorrek direla iruditzen zaigu, eta, era berean, faltsuak eta beraien burua zuritzeko eginak direla. Horregatik, idatzia irakurri bezain azkar Fidelekin hitzordua jarri genuen honen inguruan hitz egiteko, eta egiten zitzazkigun akusazio faltsuak argitzeko. Hitzordua uztailaren 1erako eman zigun, arratsaldeko zortzietarako, adostutako moduan elkartu ginen udalbatzar aretoan. Baina, han elkartu ginen herritarren harridurarako, be-

raiek ez zirela Festa Alternatiboan Batzordearekin hitz egiteko geratu argudiatuz, gurekin biltzeari uko egin eta batzar aretotik ihes egin zuten.

Herritarrekin biltzeari beldurra ote diote?

Edota zerbait ezkutatuta nahi digute?

Honen aurrean, beste bilera bat egiteko eskakizuna egin diogu alkateari, oraingoan onartuko duten itxaropenarekin.

Beraz, gure aurka egiten diren akusazioek funtsik baduten jakin nahi duenak bilera horretara azaltzea besterik ez du. Eguna eta ordua jakitean, kartel bidez zabalduko ditugu hitzorduaren xehetasunak.

EAJ-EA: Anoetarroi gezurrik ez!

Anoetarron eskubideak errespetatu!

FESTA ALTERNATIBOEN BATZORDEA ▶ ANOETA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea.

Osasun zentroa: 653212

Anoetaledea. Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde.

Osasun etxea: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza.

Osasun zentroa: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Ollarrea. Korreo, 2 (Tolosa). 943 67 01 28. Maite Plaza. Elbarren 36 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18. tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

TOLOSA ▶ JUDO A

Maria Ongay judoka tolosarra bikain Espainiako Txapelketan

23 urtez azpikoetan azpitxapeladun izan berri da; laugarrenez ariko da hemendik aurrera Espainiako selekzioarekin eta Europako Txapelketara joatea du helburu

IRATXE ETXEBESTE

Maria Ongay judoka tolosarra azpitxapeladun izan da Espainiako Txapelketan. Joan den hilean jokatu zuen txapelketa Mostolesen, 23 urtez azpikoetan. Lehenengoz jardun zuen maila horretan, eta berez «esperimentia hartzera» zihola adierazi dio Hitzari. Txapelketa ezin hobea egin zuen, ordea, eta bigarren lekuan sailkatzea lortu zuen.

Horretarako maila altuko judokei egin behar izan zien aurre tolosarrak: Madril eta inguruko txapeladunari eta Kataluniako azpitxapeladunari erraz irabazi zien, besteak beste. Hurrengo egunean izan zen 52 kilotik beherakoan finala Maria Ongayren eta 2003an senior mailan Espainiako txapeladun izan zen Teresa Blancoren artean. Indartsu irten zuen Ongayk, baina aurkaria finago ibili zen, eta konbatea irabazi zuen modu horretara.

Laugarren urtez lortu du tolosarrak Espainiako Txapelketan domina. Hirugarrenez hartuko du parte Espainiako selekzioan, eta denboraldia bu-

katu aurretik selekzio absolutuarekin kontzentratuko da, haiek Atenasera, Olinpiar Jokotara joan baino lehen.

Uda ostean izango ditu Ongayk lehia garrantzitsuenak. «Zoragarria izango litzateke nazioarteko zirkuituan puntuak lortzea, puntu horiek oso garrantzitsuak direlako Europako 23 urtez azpiko Txapelketan parte hartu ahal izateko. Azaroaren 27an eta 28an jokatu da Europakoa.

Hondarribian, bikain

Hondarribiko nazioarteko zirkuitoan bi jokalarit tolosarrek domina bana irabazi dute, bestalde, Italiako, Frantziako eta Espainiako judoken kontra jokatuta: infantil mailan Ainhoa Bengoetxeak brontzezkoa lortu zuen; bikain ari da tolosarra denboraldi honetan, eta doan leku guztietan emaitza onak ari da eskuratzen.

Junior mailan, berriz, urrezko domina lortu zuen Unai Arzelusek. Tatami gainean ondo baino hobeto jardun zuen judoka tolosarrak eta erakustaldi ezin hobea eman zuela adie-



Maria Ongay, Espainiako Txapelketan lortutako garaikurrarekin. HITZA

razi dute bere entrenatzaileak eta arduradunak. «Indarra eta teknika uztartu zituen Arzelusek konbate guztietan, oso luzea izan zen, gainera, eta bikain

eutsi zion lehiari. Perfekziotik oso hurbil izan zen». Denboraldia amaitzear dute, gustura dira judokoak kideek emaitza onak lortu dituztelako aurtan.

iragarki laburrak ▶

LANA

Asteburuetarako.

Asteburuetarako neska bat behar da barrarako. Telefonoa: 943 69 19 33.

Alegian. Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko Alegian. Ordutegia: 10:30etik 14:30era. Telefonoa: 943 65 30 34 (arratsaldetan deitu).

GARI URANGA ▶ REALEKO FUTBOLARIA

«Dirua galduta etorri naiz, baina nahiago dut etxean egon»

Getafe taldea Lehen Mailara igotzeko jokalaria erabakigarria izan eta bertan egundoko maila erakutsi ondoren, Realarekin bi urterako sinatu du ibartarrak



D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

21 urterekin, Jon Benjamin Toschak entrenatzaile zela egin zuen estreinekoa Realeko lehen taldearekin. Eibarretik Getafara joan zen ondoren, eta sei gol sartuta, denboraldi bikaina egin du. Etxera itzuli, eta Realeko hamaikakoan tokia egiten saiatuko da. Hilaren 19an taldekideekin denboraldia hasteko gogotsu dago. **Getafen dena ezin hobeto aterra zaizu. Zer moduzko esperientzia izan da?**

Hasiera batean gogorra egin zitzaidan. Madrilen bakarrik, euskalduna izan da... beldur pixka bat banuen, baina egia esan, jende oso jatorra aurkitu nuen. Zentzu horretan zortea izan dut lagun onak egin ditudalako eta esperientzia ona izan da, batik bat horregatik. **Zer ikasi duzu Getafen?** Getafen bakarrik ez nuke esan-

go, Eibarren ere bai —urte erdia egon zen bertan—. Esperientzia handia hartu dut. Gainera, partida ugari jokatu eta minutu asko izan ditut.

Alde handia nabaritu al duzu 2. B Mailatik 2. A Mailara?

2. A Mailatik Lehen Mailara ez dago horrenbesteko aldea, baina 2. B Mailatik 2. A mailara salto handi samarra dago. Kalitatean eta baloiaren erritmoan ikusten da hori.

Bazenekin Realera itzultzeko denboraldi ona egin behar zenuela. Alde horretatik presioa nabaritu al duzu?

Ez nuen beldurrik Realera ez bueltatzeko. Nire arma nagusia hori zen; Realera itzuliko ez banintz, Espainia mailan hortik zehar ibili beharko nukeela. Lasai-lasai jolastu dut, zer gertatuko zen itxaroten: Realera ez bazen, beste norabaitera.

Getafen jarraitzeko aukera ba al zenuen?

Ekainaren 30ean libre gertatzen nintzen. Nik aukera izan dut nahi nuena egiteko: Realera itzuli, Getafen jarraitu ala ez. Dirua galduta etorri naiz, baina nik nahiago dut etxean egon, nire jendearekin, familiarekin, lagunekin, neskarekin... eta horregatik hartu dut Realaren aukera. Diru aldetik nik nahi nuena arte iritsi naiz Realarekin, eta gustura etorri naiz.

Ze helburu duzu datorren denboraldirako?

Denboraldi guztiak berdin hasten ditut. Badakit zaila izango dudala lehiakortasun handia dagoelako, baina aurten, itxuraz, inoiz baino harrobiko gazte gehiago gaude. Bigarren Mailatik maila onarekin etorri naiz eta hamaikakoan postu bat lortzeagatik borrokatuko dut. Hasieran badakit ziur aski ordezeko moduan egongo naitela, baina oso indartsu etorri naiz, gogotsu, ilusioarekin. Bi-

zitza Euskal Herrian egin nahi dut eta horretarako aukera bakarra hemen daukadala uste dut.

Ba al dakizu ze postutan ariko zaren?

Ez dakit, eta ez zait askorik axola non jartzen nauten. Nik nahi dudana jokatzeko da. Ezkerretik oso gustura aritzen naiz; aurten asko jokatu dut postu horretan, baina berdin zait.

De Pedro ez egoteak mesede egin al dizu?

Ikusten zen taldeak ez zuela Javi De Pedrokekin asko kontaktzen, baina uste dut horrek ez didala ez kalte eta ez mesederik egin.

Jokalari bezala duzun dohain nagusia?

Lana. Taldearentzako lan asko egin dut, aurrera eta atzera korrika egiteko beti prest nago. Aurten zortea izan dut golak sartzeko, nahiko garrantzitsuak gainera.

Zer moduzko entrenatzaile da Jose Mari Amorrotu?

Oso ondo hitz egin didate harengatik. Ia bi aste dira harekin hitz egiten egon nintzela eta inpresio ona egin zidan, tipo umila dirudi.

Zer gertatu zaio Realari joan den denboraldian?

Txapeldunen Ligara gehiegi begiratu duela uste dut, gehiegi bideratu duela denboraldia Europara. Denboraldi onaren saria izan zen Txapeldunen Liga, baina hori bigarren maila batean utzi behar zen. Jokalari garrantzitsu asko, Kovacevic, Xabi Alonso... ez dira ondo aritu, baina Europako txapelketa presioak eragin nabarmena izan du.

Non egon beharko luke Realak?

Realak lehen hamarren artean egon behar duela uste dut, jaisteko inongo arazorik gabe. Denboraldi batzutan Liga irabazteko aukerak egongo dira, baina ezin da eskatu urtero lehen hiruretan sartzeko.

Taldeko zuzendariek diote

GETAFEN

«Hasieran gogorra egin zitzaidan, baina jende oso jatorra aurkitu dut eta lanun onak egin ditut bertan»

TALDEA

«Nahiago dut etxean egon, nire jendearekin, familiarekin, lagunekin, neskarekin... horregatik aukeratu dut Real»

HELBURUA

«Bigarren Mailatik maila onarekin etorri naiz eta hamaikakoan postu bat lortzeagatik borrokatuko dut»

harrobiaren aldeko apustua egiten dutela. Benetan hala dela uste al duzu?

Aurten gazte asko gaude gogo handiarekin, harrobiaren aurreikuspenei erantzuteko. Orain guri otu zaigu, ez dutela aukera okerra egin erakustea. Aukerak emango dituzte, eta guk aprobetxatu eta erakutsi egin beharko dugu hor egoteko gai garela.

Ez al daude atzerritar gehiegi Realean?

Beti esan dut taldeko oinarria etxeko jendearekin izan behar duela Real, hiruzpalau atzerritar oso onekin, desberdintasuna agerian uzten dutenak: Nihat, Kovacevic... horrelakokak.

Non ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?

Zaila da esatea. Zortea izanez gero eta denboraldi pare batean ondo arituz gero —gainera etxekoa izanda marjen gehiago daukat— lauzpabost urte egotea ziurtatzen duzu. Baina aurten jokatzeko ez badut, hurrengoan haizea hartzea.

Zer da zailagoa Lehen Mailara iristea edo mantentzea?

Iristea ez da zaila. Bigarren mailan nabarmenduz gero, segituan Lehen Mailako talde batek fitxatu nahi zaitu. Are gehiago gaztea izanda. Lehen urtea ez, ilusio handiarekin zozazelako, baina bigarrengo urtea zailagoa izaten da eta hori argi geratu da beste kasu batzutan.



www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorian agurrak...

EUSKARA ▶

Bai Euskarari Ziurtagiriak eskuratu dituzte 57 eragilek

Ostiralean egin zen banaketa-ekitaldia, besteak beste, Xabier Mendiguren Kontseiluko lehendakaria bertan zela



Banaketa egunean, eragileak ziurtagiriak eskuan dituztela. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo ostiralean jaso zituzten Bai Euskarari Ziurtagiriak Areso eta Leitzako hainbat eta hainbat eragilek. Guztira 57 dendari, elkarte, lantoki, erakunde eta eragilek lortu dute ziurtagiria eskuratzeko eta hemendik aurrera, bakoitzak bere lantoki edo egoitzan erakusgai izanen du. Ostiralekoa ekitaldi jendetsua izan zen, gonbidatu gehientsuenak bertara bildu baitziren eta bestal-

de, «egin diren horrelako ekitaldiekin parekatuz, ziurtagiri gehien banatu izan dena delako», zioten Kontseilukoek. Bestalde Euskal Herri osorako egitasmoa den Euskararen Normalizazio Plangintza honetan dagoeneko 100 herritako eragile, dendari, erakunde eta elkarte parte hartzen dutela nabarmendu eta «denok elkarrekin lan eginez, euskararen uholdea geldiezin eginen dugu», gaineratu zuen Xabier Mendiguren, Kontseiluko Idaz-

kari Nagusiak, ziurtagiriak banatu aurretioxan, hitza hartu zuenean.

Oraingo txandan, Areso eta Leitzako 80 elkarte, eragile, erakunde eta lantokitara joan da teknikaria. Saiakera hau froga modura egin badute ere, «oso gustura eta nahiko konforme» daudela argitu dute arduradunek eta emaitzak ikusita, berriz ere, beste kanpaina batzuk burutuko direla eman dute jakitera, oraingoekin lanean eta harremanetan jarraituko dutela jakinaraziz batera.

Ziurtagiria eskuratu izana, ordea, ez da euskararen normalizazioan helmugara iritsi izanaren seinale, baizik eta «eragile horietako bakoitzak, hain zuzen ere bide horretan, bere kabuz jada urratsak emanak dituela adierazten du eta aurrera begira, alor horretan konpromiso firmeak hartu dituztela, urtez urte beraiek eskaintzen duten zerbitzua eta lana ere, euskaraz burutzeko asmoz», argitu dute bestalde.

Areso eta Leitzako kopuruei, Arano eta Goizuetakoak erantsiz, 79 dira ziurtagiridunak.

AINHOA VIGUERA

ASKETA ABESBATZAKO KIDEA

«Beharrezko jotzen dut, euskararen gaian gogor ari behar dugunak, gu garela oharrezko. Honek motibatu egiten gaitu»

LIDIA ALKORTA

DENDARIA

«Komertzioek bakoitzak bere ezaugarriak dituzte. Pauso tikiak emanez, saiaturako gara gure konpromisoak betetzen»

DABID SESTORAIN

ENPRESARIA

«Urratsak emateko aitzaki bikaina da. Oztupoekin topo egin arren, aurrera egingen dugu borondatearekin»

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean
TOLOSA
 Tel.: 943 65 50 37
 Faxa: 943 65 09 44
 e-mail: ernio@inmoernio.com
 www.inmoernio.com

Tolosa. Erremetari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.

Tolosa. Agintari kalean, bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.

Tolosa. Erremetari kalean, bi logelako apartamentua salgai. Oso egoera onean dago. 153.258 euro.

Tolosa. Alde Zaharra. Hormigoizko eraikuntza berria, igogailuarekin, 3 logelako pisua salgai.

Tolosa. Zabalarrera parkera ematen duen 120 m²-ko pisu ederra salgai...

Tolosa. Larramendi, Pisu ederra garajearekin salgai.

Tolosa. Gernikako Arbolako lorategian, 108 m². Pisu ederra salgai. Aukera handiak.

Tolosa. Lurrarmendi auzoan, Sam-eko bi etxe atxi salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak! 438.739 eurotik aurrera.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berogailuarekin. Guztiz

kanpoaldera.

Ibarra. Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 185.713 eurotik aurrera.

Irura. Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajearekin. Terraza ederra.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Beasain. Logela bateko etxebizitza. 99.167 euro.

Andoain-Urrieta. Hainbat etxebizitza berri eta 2. eskukoak. **Baserriak.** Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...

Pabilioiak. Aukera handia; salmantan eta alokairuan.

Borda. Salgai Urrietan.

Alkizan. Eraikuntza berriko azkeneko etxe bifamiliarra salgai. **Peñiscolan.** Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin. Informazioa: 943 65 50 37.

ARESO ▶ FESTA



Euskal Herriko Sokatira Txapelketan 560 kiloko Aresoko taldea. J.A.

Areson asteburu beroa izan da alde guztietatik

Gazteen festa egunak ez ezik, Euskal Herriko Sokatira Txapelketa ere jokatu zen

J. ASTIBIA

Asteburu beroa izan da igaro berri den hau Areson, eta ez eguraldiari dagokioenez bakarrik. Izan ere gazteek asperetzeko betarik ere ez baitute izan, festa hasi bazen hasi eta bestalde, Euskal Herriko sokatira txapelketako saioa ere bertan burutu baitzen.

Gazteak, giro ederrean ibili ziren batetik bestera kalejiran, larunbatean baserri baxerri eta igandean etxerik etxe, trikitilariak lagun zituztela, eskean: jan-edana, musika eta umorea barra-barra. Eta herrira itzulitakoan ere, segi dantzari eta kantari!

Jardunaldi berezia

Eta igande goizean San Pedroren irudia bizkarrean zutela prozesioa burutu zuten eran, arratsalde herriko sokatira taldeak bide bera ia hartu zuten, Euskal Herriko Sokatira Txapelketan jokatu zituen tiraldi guztiak irabazi egin baitzuten. Horien artean bereziki ospatu zutena, ordea, oraindainokoa menperakaitz egin zaien Nuarbeko taldeari ira-

bazitakoa izan zen. Kontuak kontu, igande arratsaldean Euskal Herriko Sokatira Txapelketako 560 eta 600 kiloko saioak burutu ziren Areson. Pisutsuenetan 6 talde aritu ziren lanean eta 4 bestean. Eta aresoarrek lortu zituzten 15 punturen ondoren, 600 kiloa 2. postuan sailkatu ziren, Nuarberen ondoren geratuz; eta bestean berriz, eskuratu zituzten 9 punturekin, Areso da sailkapeneko 1. goa.

Ikuskizunean, ordea, ezustekoak ere izan ziren: Aresoko 560 kiloko taldea une batez deskalkifikatu egin zuen epaileak, protestaren bat zela bide. Gero aurrera jarraitzen utzi zien. Baina, berriro, jardunaldia bukatzeko tiraldi pare bat falta zirela, epaile berak bertan behera uzteko agindua eman zuen, berari egindako «komentarioaren» batengatik. Urduritasuneko uneak izan ziren: epaileak eta taldeetako arduradunak eztabaidan aritu ziren eta azkenik «jardunaldia bukatu eta hitz egin beharrezkoak hurrengo larunbata baino lehen hitz egiteko» konpromisoarekin, txapelketako saioari bukaera eman zioten.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 6a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albitur, Aiegia, Aizta, Alzo, Ametsleta, Ansoa, Balerano, Berasteg, Elduain, Hernialde, Ibarra, Inara, Larnai, Laskiburu, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurerria

Kultura Saila

Eusko Abuztuaren 100. Urteurrenaren Logoak

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Sendi ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.
Tolosa. Zerkausiar buruzko bilera, 20:00etan udaletxeko areto nagusian. Gaia: Zerkausia, estalkiaren erabilera zehaztea.
Tolosa. Pala Txapelketarako izen-ematea Tolosa CFren bulegoan (943 67 17 49).
Tolosa. XIV Orduko Ibilaldiko bideoa Shanti eta Dickens tabernetan.

ERAKUSKETAK

Altzo. *Altzoko Erraldoia, Altzo ezaguna egin duen gizona* erakusketa haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiago: 943 65 24 13.
Hernialde. Luis M. Nuñezeko koadroak Ostatuan.
Tolosa. Kultur Etxeko tailerretako ikasleen eskulanean erakusketa Aranburu Jauregian. Asteartetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara.

ZINEMA

Tolosa. *El efecto mariposa.* Gaur, ikuslearen eguna, 19:30ean eta 22:30ean Leidor zinema aretoan.

Tripa zuriak agerian, berriz

IBARRA ▶ Elduain ibai bazterretan hilda agertu dira arrain ugari azken egunotan; ez da lehen aldia, lehen ere horrelakoak gertatzen dira



Sakabanatuta ageri dira, baina guztira asko dira Elduain errekan hilda azaldutako arrainak. D. GIBELALDE

ERREDAKZIOA

Paisaia goibela, ezatsegi-na ikusi ahal izan da azken egunotan Elduain ibaiko bazterretan. Asteburuan batik bat, makina bat arrain ikusi ahal izan dira hilda, ur gainean ez ezik ibai bazterretan ere bai, tripa zuriak goraka dituztela. Hilda, kutsaduraren ondorioz. Atzo ere gertatzen ziren oraindik makina bat. Gehienak San Inazio auzoan eta Zumardi Handiaren pa-rean.

Ez da ordea, azken urteotan horrelakoak gertatzen diren lehen aldia. Bizpahiru alditan, azken orain bi hilabete, Elduainen ez ezik Tolosako erdialdean, Oria Ibaian hain zuzen, agertu ziren arrain pila bat hilda eta ura kolorez aldatuta.

Lehenengo begiratuan inor gutxik erreparatzen dio arrain asko daudela hilda. Izan ere, ibaiko ibilbidean sakabanatuta agertzen dira arrainak; hemen bi, han beste lau, pixka bat urutiago beste bat... baina orotara asko dira. Horrelakoak gehiago ez gertatzeko kontu handiagoa hartu beharko du kutsadura eragin eta ibaira hondakinak isuri dituenak.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Julen Urrestarazu Insausti (Irura). Zu zara gure poza, Julen. Gaur urtebete. Aiton-amonen eta ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Mikaela Aiestaran eta Francisco Garaiburu (Berastegi). Gaur 50 urte ezkondu zirela. Muxu asko familia osoaren partetik.

AGURRAK ▶



Juanita Pabolleta Andia.

Amona, zure bizitza osoa eredu izan da bukaera arte.

Eskerrik asko eta gero arte.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!